

“Ni puta bat naiz”

Ander Lipus | Iñigo Ibarra

Ikastera Madrilera joan aurretik, Mikel Garmendia zenak asko jaten ote zuen galdetu zion behin. Buruarekin baietz erantzunik, “orduan ez zaitez antzerkian jardun” aholkatu zion Mikelek. Gaur arte.

SUSTRAI COLINA

Argazkia: Iñigo Azkona

Ez al zinen zu mundua aldatu behar zuena?

Mundua aldatu ezin dudanez saiatzen naiz munduak ni aldatu ez nagan. Momentuz, erresistentzian bizi ahal naiz, badaukat ogia eta tabakoa erosteko beste.

Erresistentzia ogia eta tabakoa erostea baldin bada...

Hamazortzi urte neuzkanean, auto-stopean joaten nintzenean eskopeta batekin eta ispi-lu batekin nire obra egitera, garbi neukan profesionala nintzela, antzerkia egitetik biziko nintzela. Pentsa, Eibarrek fitxatu eta futboleko jokatzeari uko egin nion lesioak saihestearren!

Beno, lehen artea zen iraultzaren abangoardia, orain arbitroa iraintzea.

Ezer aldatu nahi ez duen erosotasun burgesa dago. Gainez egiten dit. Injustizia asko dago, eta injustizia horiek kontatzeko modua ere *establishment* bat da. Programatuta bizi gara. Hau orain, hori gero... 20:30etarako bukatu dadila emanaldia, gero nire alabaren bila joan behar dut-eta!

Aizu, ez duzu alaba zain egoterik nahi izango, ala?

Ez dugu gure pentsamendurik aldatu nahi! Ez dugu gure beldur, tabu eta ezinei buruz hitz egin nahi.

Gure agintariek egiten ez badute...

Sistema oso abila da. Sistemari artea eta antzerkia ez zaizkio batere interesatzen. Sistemak bere ideologia kontrolatu behar du, eta hortik kanpo dagoen guztia aurkaritzat dauka. Teatroa beti egon behar da sistemaren kontra! Horrek egiten du gure teatroa politiko.

Altxa ukabila eta hasi *Internazionala* kantatzen!

Euskal Herriko burgesia honi ez zaio teatroa interesatzen, interesatzen zaio errepedeak egitea, baserriak txukun edukitzea, kultur kudeatzaile asko egotea, eta euskal kultura ondo dagoela esatea. Zer euskal kultura eta zer ostia!!! Hori gezur handia da, gezur hutsa.

Ez zara euskal kulturaren alde antzerkia egiten duten horietakoa?

Nik jendearentzat egiten dut antzerkia, herriarentzat, hasi ume txiki batengandik eta amona zaharreneaino. Ni puta bat naiz, ez dut sekula niretzat egiten, ez baitut planteatzen zergatik egiten dudan antzerkia, zertarako egiten dudan baizik.

Ez al zenuen ogia eta tabakoa erosteko egiten?

Barrura begiratzeko egiten dut. Oso inportantea da tarteka barrura begiratzea, berriz jaioitzeko hiltzea. Bestela oso erosoak gara, eta eroso bizitzea oso erraza da. Deseroso bizitzea da zaila. ■